

Gaztetxeen
jaietan
murgilduta

Urtemugak dituzte
bi herrietan ▶ 6



Tolosak sendo jarraitzen du lidergoan bost gol sartuz Trintxerperi

LANA ▶ «Gure lana bete dugu», diote taldeko ordezkariak

GOLAK ▶ Lasak (2), Pradosek (2) eta Errastik sartu zituzten golak ▶ 7



Trintxerpe defentsan atzo. J. JASTIBIA



Gaur da altzari zaharrak ikusteko azken eguna

TOLOSA ▶ Almoneda eta Alzari Zaharren Azokak gaur izango du azken eguna Ferialekuan. Produktuak «ezagutzera ematea» eta «saltzea» dute helburu Gipuzkoa, Bizkaia eta Madrilgo 15 erakusmahaiak. NOELIA LATABURU ▶ 4

www.saldias-miguel.com

SM Saldías Miguel Kotxe aseguruetan %60 ko beherapenak

- AUTOAK
- ENPRESAK
- AUTONOMOAK
- MOTOAK
- DENDAK
- MOTA GUZTITAKO
- ETXEAK
- ISTRIPUAK
- ASEGURUAK

Nafarroa Etorbidea, 12 behea • 20400 Tolosa • Tel. 943 651189/ 943 653462 - Faxa: 943 653462

Errementari kalea z/g
TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30
LENTZERIA

NEREA
1952

AZPIKO ARROPA
Pijamak, bainujantziak,
azpiko arropa

POLIMEROEN INJENIERITZA IKASI DUT ETA ORAIN PROIEKTU GARRANTZITSU BATEN ARDURADUNA NAIZ ENPRESA BATEAN.

POLIMEROEN INJENIERITZA ATEAK ZABALIK

Maiatzaren 12an 19.00etan / Maiatzaren 26an 19.00etan

Tf. 94 616 90 02
www.learatik.com

NIK ERE PASADAN URTEAN BUKATU NUEN KARRERA ETA IKASTURTE HONETAN DOKTORAUTZA EGITEN ARI NAIZ.

ZEN INTERESGARRIA! BA NIK ERE POLIMEROEN INJENIERITZA IKASTIKO DUTI!

UZTURRETIK ▶
XABIER TELLERIAPolitika
maiuskulaz eta
minuskulaz

I barrako Uzturpe Ikastolak eta Tolosako Laskorainek merezimenduak egin dituzte Zilarrezko Q delako aitortpena jasotzeko; bere garaian Euskalduna Jauregian egindako ekitaldian jaso zituzten aitortpen horiek ekitaldi orokorrako batean. Oraingoan, etxean bertan egokitu zitzaizkien aitortpena jasotzea, eta niri dagokidanez, Laskorainek guraso guztiei egindako gonbiteari gogo onez erantzunda, ekitaldian izan nintzen, egindako ahalegina eskertzeko edo.

Agintaririk ere ez zen falta, herrikoak bezala beste erakundeetakoak; gorenena, Hezkuntza sailburua, Anjeles Iztueta. Protokolo hutsezko ekitaldia zitekeena, probetxuzko denbora bihurtzera deliberratu.

Hala, hezkuntza gaiak politikagintzan izan dezaketean aplikazioaz aritu zitzaigun; matematikaria den aldetik, Sailburu andereak zerbaki imajinarioak eta errealeak azaldu zizkigun grafikoki, modu bertsuan politikan ere imajinazioa eta errealitatea uztartu behar direla adierazteko.

Ondoren, bere ibilbide politikoa gidatu duten bost mandamenduak azaldu zizkigun: emandako hitza betetzea; koherentzia jokatzeko; lortu beharreko helburuak argi izatea; akordioetara iristea; eta politika herritarren zerbitzura uleretzea, eta ez norbere edo alderdiaren mesederako. Aurrekoak zintzo betetzen saiatzen omen da bere jardunean. Politika maiuskulaz egiteko. Horregatik, agian ez du luze iraungo goi karguetan sailburu andereak.

Esan ez zuenarekin geratu nintzen ni. Mandamendu horiei aldaketa oso txikiak egin da biltzen dugun uztarekin. Beren zerbitzua, beharrezkoa ez ezik, herriaren aurrerapenerako ezinbestekoa dela pentsatzen duten pertsonak daudenean, horrekin koherentzia jokatu eta edozein helburu argi justifikatzen dutenean, akordioa eta elkarriketa bezalako hitzez ahoa betetzen dutenean geratzen zaigunarekin: iraupen luzeko politiko minuskulak.



Tolosa futbol taldea Berazubín jokatu zen lehen partiduan

ARGAZKI ZAHARRA ▶ Igoera jokatzen ari den une honetan, animoak emateko, Tolosa CFren argazki zahar bat dakargu txoko honetara, Berazubi estadioa egin zutenean jokatu zen lehen

partiduko hain zuzen. Market, Rekondo, Olaso, De Pedro, J. Iguaran, E. Iguaran, Alkorta, Rouge, Iturralde, Aranburu eta F. Hilario dira jokalariek. Aupa urdinak! 'GURE TXOKOA 1930-2005' LIBURUA

GREGORIO ARAMENDIA ▶ SUKALDARIA

«Munduko edozein lekutan
hemengo sukaldeak egin
izan dut beti nik»

Sukaldari izan da eta lanbide horren itzalean
munduz mundu ibili da Gregorio Aramendia; hainbeste
lurralde, hainbeste ikusi du hango eta hemengo txokoetan

JAIONE ASTIBIA

Gregorio Aramendia leitzarra, gaur egun jubilatuta badago ere, sukaldari izan da bere denbora guztian. Eta lanbide horri esker, munduan zehar ibilitakoa, hango eta hemengo jatetxeetan, gainera «alde aldekoetan beti», bere hitzetan. Argazkiak ditu frogak; asko eta asko.

Lanbidez, sukaldari. Noiz hasi zinen horretan?

1968an hasi nintzen, Iruñeko Rodero jatetxean.

Non ikasi zenuen?

Han bertan. Zazpi urtez aritu nintzen ikasten, Jesus Rodero nagusia berarekin. Honek andrea Berrobikoa du. Gero, Perigeux-eko (Frantzia) ostalaritza

eskolara bidali ninduen, trukean, sukaldean praktikatzera. Limoges-en ondo-ondoan dago hori, oso leku polita da lekua. Eta gero, jatetxeetara.

Hau izan zen zure lehen lana?

Ez. 14-15 urterekin, hemen, Oialden hasi nintzen tabernari gisa. Eta hor ari nintzela ezagutu nuen Rodero. Jatetxea ireki behar zuela esan zidan eta berarekin joan nahi nuen galdetu. Nik baietz erantzun nion.

Nola joan zinen atzerrira?

Rodero beraren bidez. Atzerrian, hemengo sukaldaritzaren erakusteko konbentzioak antolatzen zituzten eta beste bartzuen artean, ni ere joaten hasi nintzen eta horrela...

Zenbat herrialdeetan aritu izan zara?

Askotan. Hemen, Iruñeko Avenida hotelean sukaldari nagusi izan naiz, Iruña Park-en ere; eta gero denboraldiak egin ditut, batean eta bestean: Madril (España), Bartzelona (Katalunia), Caracas (Venezuela), Alemania, Perigeux (Frantzia), Filipinak... Denetan, jatetxe berezituak aritu naiz.

Zer sukalde mota egin izan duzu?

Denetik, baina, hemengo sukaldeak egin nuen nik, beti. Ni aritu naizen hoteletan, esate baterako Filipinetan, 1.200 lagunek eginen zuten lan eta 7 jatetxe zituen. Horietako bat, guinea, hemengo sukaldeak eginen zuena zen.

Non aritu izan zara gustuen? Roderon. 23 urteren burura,

hara itzuli nintzen, hango seme-ari erakustera. Orain asko daki berak.

Zein da bizitzeko lekurik hobena?

Leitza. Baina Venezuelan ere ongi bizitu nintzen. Berriz ere itzuliko nintzateke, 6 bat hila-betetarako. Gustura bai!

Hainbeste herrialdeetan izanda, ohiturak ere desberdinak izanen ditugu, bada?

Bai, noski. Baina hemengo janaria eta prestatzeko era, asko gustatzen zen edozeinetan. Orain bai, ohiturak? Esate baterako, Filipinetan, 94-95 urteak ziren, ez zuten deus ere uzten: jende aberatsak, beren otorduan sobratzen zena, eraman egiten zuten, hotelekoek ontziratu eta txoferrekin beren etxetara bidaltzen zieten. Langileek, berriz, 15 egunetik ko-bratzen zuten eta hileko arroz zaku bana jasotzen zuten, dekretoz. Venezuelan, hoteleko kubiertoak urrezkoak ziren, eta langileek detektagailutik pasa behar izaten zuten ateratzerakoan; bakoitza hainbesteren arduradun zen eta bakarran bat faltatzen bazen, ordaindu eta gainera, kalera.

Jende asko ere ezagutuko zenuen. Berezirik?

Ezagutu, bai. Argazki asko ditut horrelako pertsonaia ezagunekin aterak ere: jatetxera joan eta sukaldaria ezagutu



ANJEL ALKAIN
AKTOREA

«Eguneko parranda nahiago dut, gero gauarekin segitzeko; Santamaña auzoko jaiek ditut gustukuen»



JOSEBA ORMAZABAL
MENDIKO ESKI TXAPELDUNA

«Fisikoki zaila da hobetzea, baina teknikoki oraindik badago tartea»

IRITZIA ▶ JOSU IZTUETA AZKUE (BIDAIRIA)

Turismoa, tximiniarik gabeko industria

Gazte gaztetandian herritik kanpora estranjeri aldean pasa det denbora...» dio Jose Mari Iparragirrerren abesti ezagunak... «(baina bihotzak dio: Zoaz Euskal Herrira». Niri ere antzeko zerbait gertatu zait. Gure gaztetxo garaian, inguruko bazterrak ezagutzeko aukera ederra izan genuen, Uzturre mendi elkarteko, gu baino zaharragoekin. Ezagutzen dena soilik maitatu omen daiteke eta horri esker ikasi nuen, nik behintzat, etxekoa, gertukoa, hemengoa behar bezala apeziatzen. Hogeitagutxi urterekin mundua besteei erakusteari ekin genion autobus zahar batekin, milioi bat kilometro lur azaletik egin ditugu geroztik eta beti itzuli izan naiz pozik etxera, Letxukalera, Tolosara, Euskal Herrira... nongoa naizen ez zait sekula ahaztuko. Bi hamarkada pasatxo eman ditut joan-etorrian, banoa eta banator, eta aldiro pentsatu dut eskualde pribilegiatu batean bizi garela. Asko ibili beharra dago kanpoan hemen hain eskura dauzkagun gauzak ikusteko!

Aurreko batean turismoari buruzko jardunaldiak antolatzeotan direla Tolosaldean eta aurkezpen ekitaldira deitu ninduten. Interesgarria ote da eskualdea bisitarien-tzat? Erakargarria suertatu al daiteke Tolo-

saldea kanpotarrentzat? Nola antolatu liteke ingurua turistentzat? Kontatu zidatena-gatik galdera horiei nola erantzun jorratuko dute asteon.

Turismoa, tximiniarik gabeko industria dela esan zuen norbaitek, eta gurean ere horrela izango da ziurrenik. Tximini ugari izan dugu urtetan zehar Tolosaldean eta pixkanana arrazoi ezberdinen ondorioz gutxitzen joan dira, orain etorkizunari begira badirudi, turismoa, jarduera interesgarria bihur daitekela eskualdekoontzat

Gaur bertan, etxeazpian, Gorrotxategiren museoa bisitatzeraz etorritako atzerri-tar taldea somatu dut. Berehala antzematen zaio kanpotarrari ez dela hemengoa. Tolosako kaleetan despistatu itxurakoa izaten da bere jarrera, paperen bat eskuarte-tean duela gora begira ibiltzen da *turista*, batzuetan kale izenaren bila dabilela dirudi, baina ez, eraikuntza horretan zerbaitek atentzioa eman dion seinale. Norbera berri, handik mila aldiz pasatokia izan arren goialde konturatzan da atzeritarrak erreparatutakoa bitxikeriaz. Tolosaldeko errepi-detan aldiz, mantso mantso gidatzen dituzte turistek kotxeak, bazterretara begira tarteka geldituz egiten dituzte argazkiak. Egun inoiz baino errazagoa da batetik bes-

tera mugitzea, ondorioz gero eta jende gehiago etortzea normala izango da aurre-rantzean, etorritakoak bizpahiru egun inguru geratzera animatu beharko genuke. Urrutiko ezagunak etxera bisitan etor-tzen direnean, Tolosako Alde Zaharrean buelta eman, larunbatean Zerkausian ibili, eskualdeko herririkaren batean bazkaldu, Uzturre edo Txindokira igo, kultur edo kirol ekitaldiren bat erakutsi... eta munduko edozein lekutakoa den kanpotarrak *aluzi-natu* egiten du.

Etorkizuna denon artean erabaki behar-reko zerbait da, halere alde aurretik den-en gustukoa izatea ezinezkoa dela aitortu beharra dago. Saia daitezela behintzat egunotan gehiengoaren nahiak eta behar-rak aztertzen. Tolosaldean, dagoeneko 1.000 lanpostu inguru omen dira ostalari-tza, jatetxe eta zerbizuetan, izan bitez on-gietorriak beste hainbeste ere gauzak txu-kun egiten badira!

Amezketan Mountain Resort, Berastegi International Camping, Abaltzisketa Disneyland Park, Leitzalarrea Safari Park eta Tinglado Nautical Club AHT bezain handiak eta neurritz kanpokoak gerta dakizki-guke. Gauza txiki eta kuttunen aldeko apustua egingo nuke nik.

PERTSONALA ▶

▶ Leitzan, Zabalonen jaioa ▶ 1949ko apirilaren 10ean ▶ 14-15 urtetan lanera aterata zen ▶ Bere bizilekua Iruñean izan du, baina orain Leitzan bizi da

Gustoko jaki bat? Hemengoa, dena. **Edaria?** Ardoa: arrainaren-tzat Albariñoa, haragiarentzat 42ko Tondonia. **Jan izan duzun gauzarik bitxiena?** Ureko arratobea. **Sukaldaria?** Paul Bocuse. **Eta hemen?** Subijana. **Jatetxea?** Zalakain, Madrilen (Espainia).



nahi zutelako edo. Jende oso aberatsa joaten zen gure jate-txeetara. Baina, jende pobre asko ere ezagutu dut.

Asko ikusi ere bai orduan?

Asko. Caracasen, *ranchitos* deitzen dieten auzo pobreetan autobus zaharren karrozeriak baliatzen dituzte komisaria modura. Filipinetan, Monte Rojo deitzen den parajeon dute zaborteia. Jende asko da han biltzen duenarekin bizi dena. Baina, badira mafia-en-presak, hara joateagatik ko-bratzen dietenak: gehien ordaintzen dietenak joaten dira lehenbizi, horrela gauza gehi-go eta hobeak biltzeko. Beste-ak, gero.

Zerk eragin dizu gehien?

Filipinetan, hildakoak saldu egiten zituzten. Alegia, norbait hiltzen zenean, *enpresa* batekoak etortzen ziren eta familia-ri diru bat ordaintzen zioten, eta horrekin denbora batean bizitzeko haina izaten zuten. Nolaz? Han 7.000 irla benik ba-direnez, familia elkartu arte, 15 egunez eduki zezaketen hilda-

koa beilan. *Enpresa* hauek, egun horiek baliatzen zituzten, gainerakoan debekatuta zego-en jokoan aritzeko: nonbait familia elkartzeko esperoan zeu-denean denbora pasarako jo-koa ez baitzegoen debekatuta. Horrela, beste mafia bat dago sortua, jokorako. Venezuelan ere, estatu kolpea izan zenean han suertatu nintzen eta, hilda-koak eta kalean ikusten ziren... Hura ere gogorra izan zen.

Orain jubilatuta zaude. Argazkigintza duzu afizio.

Beti izan dut zaletasun hori. Be-rezia iduritu zaidan guztiari aterat diot. Argazki asko ditut. Orain kamera digitala ere ba-dut eta ordenagailuarekin eta moldatzen naiz.

Errezeten konturen bat ere badarabilkizu, eskuarte.

Bai, bilduma handi samarra dut eta txukundu eta horrekin zerbait egiteko ideia dut.

Otordu on bat prestatu.

Pikoteo pixka bat, Iberiako ur-daiazpikoarekin eta, barazki salteatuak, lubina basatia eta Marc de Champagne sorbetea.

AZOKA ▶

Gaur amaituko da Almoneda eta Altzari zaharren Azoka

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara irekiko da; guztira 15 erakusmahai daude ikusgai Ferialekuan



Azokara gerturatutako jendeak xehetasun guztiak begiratzen ditu produkturen bat erosi aurretik. N. LATABURU

NOELIA LATABURU

Tolosako Ferialekua almoneda eta altzari zaharren erakuslehi bilakatu da asteburu honetan. Eta gaur itxiko ditu bere ateak «produktua ezagutzera ematea eta komertzializazioa bultzatzea helburu duen» Tolosako Almoneda eta Altzari Zaharren Azokaren XI. edizioak, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara zabalik

izango delarik. Tolosako Udaren laguntzaz antolatutako azokara sartu ahal izateko 3 euro ordaindu beharko dituzte bisitariek.

Guztira Gipuzkoa, Bizkaia eta Madrildik datozen hamabost erakusmahai daude. Hauetatik bakarra da tolosarra. Jon Ander Lardies da bera eta altzarien zaharberitze lanetan aritzen da. «Bigarren urtea da niretzat eta saldu baino,

publizitatea egitea dut helburu, horrela jendea nire tailerreira hurbil dadin», adierazi du Lardiesek. Dena den, «saldu ere saltzen da» azoka hauetan eta bertako eta inguruko azoketan parte hartzearen garrantzia azpimarratu du tolosarrak.

Lehen eguna nahiko ahula izan zen arren eta bisitari gutxi izan bazen ere, «azokari gertatzen zaion denboran jende asko gerturatzea espero dugun», adierazi zuten saltzaileek. Horrela, goizak aurrera egin ahala, jendea pixkanaka Ferialekura sartzen hasi zen. Jon Ander Lardiesen esanetan, «jende gaztea baino, helduak etortzen dira gehienbat»; hauen artean, berriz, batzuk «gauza zehatzen bila» etortzen dira; beste batzuk, aldiz, «aholku eske eta begirada bat ematea» hurbiltzen dira azokara.

Altzariak tratatzeko

Ferialekuan topa daitezkeen erakusmahai guztietatik batek

ZENBAIT DATU ▶

ERAKUSMAHAIK

Aroa. Legazpikoak.
Isabel Midenabeitia. Bilbotarrak.
PM estudio. Getxoakoak.
Antiqua. Donostiarrak.
Brocante Mujika. Donostiakoa.
Elena Herrero. Ordiziako.
Patxi Garmendia. Ordiziatiak etorritakoa.
Maiala. Urretxukoa.
Leonor Victoria de Lecea. Madrilgoa.
Carmen Medina. Donostiarrak.
El viejo almacén. Errenterriakoa.
Carlos Ibarra. Martutenekoa.
Antigüedades M. Gallo. Donostiakoa.
Jon Ander Lardies. Tolosarra.
Hol-Atz, S.L. Adunakoa.

ORDUTEGIA

Gaur. Gaur da azken eguna, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara.

PREZIOA

3 euro. 12 urte azpikoek doan dute sarrera; gainontzekoek 3 euro ordainduko dituzte.

badu berezitasunik. Ines Isasti jabea den Hol-Atz zur eta altzarien tratamenduaz arduratzen den postua, hain zuzen ere. Bertan ez dira altzari zaharrak edo almonedarik topatzen, informazioa baizik. Eta jende asko gerturatzen da postu honetara, informazio eske. Ines Isastik Adunan du bere negozioa, baina «urterto urterto azoka honetan parte hartzen dut», aitortu du. Azoka ikustera eta bertako eskaintzak erostera joaten den jende kopurua jaitzitsa doala adierazi du Isastik. «Hainbat baldintzaren arabera izaten da, baina hasierako urteetan arrakastatsua gertatzen ziren azoka hauek». Halaber, «alor guztietan bezalaxe», kompetentzia handia dela aitortu du Hol-Atzekoak. Prezioetan ere eragina izan ei du; hori dela-eta Almoneda eta Altzari Zaharren Azokan topa daitezkeen prezioak «oso eskuragarriak» dira, kalitatea aintzat hartuz gero. «Aukera handia dago», gaineratu du.

Bada, etxea apaintzen, berri-tzen edo txukuntzen ari diren gazte zein helduek aukera paregabea dute gaur amaituko den azokara gerturatu eta bertan falta dutena aurkitu ahal izateko.

AZOKA ▶

Giro ona eta eskaintza zabala atzo azokan

Lehen babak eta ilarrak izan ziren; onddo eta ziza asko ere izan zen aukeran

PABLO ALBERDI

Atzoko goiza pixkanaka hasi zen animatzen, eta eguerdi aldera giro eder eta animoso izan genuen azokan. Produktu eskaintza ere oso zabala izan zen, eta ikusi genuenez, garaian gaude barazki zerrenda oso zabala dastatzeko. Babak eta ilarrak dagoeneko hasi dira, eta patata berriarekin, produkturik arrakastatsuenak suertatu ziren.

Perretxiko eskaintza oso zabala izan zen. 250 kilo ziza, 15tik 30era arte saldutakoak, onddoak 20tik 25era arte, eta kolmenilla perretxikoa 36etan saldu.

Berdura plazan giro ezin-hobe izan genuen, eta askok izan ziren baratzerako landareak erosi zituztenak. Apaingarriko landareen eskaintza ere puri purian dago.

PREZIOAK ▶

Berdura plaza merk. Landareak	merk.	gares.
Xarbota	4,00	6,00
Zintzilikoak	2,40	6,00
Erromeroa	4,00	6,00
Geranioa	1,90	2,50
Konifera	6,00	

Plantula		
Porrua	2,40	
Lekak	0,35	0,40
Piparrak	0,20	

Bertako produktak

Mikologiko espeziak		
Ziza	40,00	42,00
Ontoak	24,00	

Barazkiak		
Babak	3,50	4,00
Tomatea	3,00	4,50
Kalabaza	1,50	3,00
Ziazberba	1,00	1,50

Gaztak		
Behigazta	7,00	7,50
Ardigazta	12,00	14,00
Ardi-behi	11,00	

Besteak		
Arraultzak	1,30	2,10
Ogi biologikoa	1,77	
Mermelada	3,00	3,60
Azukrea	3,35	

TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

ESKAINZA PARTZIALA: 'MEKANIZATUA'
(Erdi mailako ziklo formatiboa)

- **Zuzendua:** Pertsona helduei, Ziklo formatiboa malgutunez ikasteko moduan egokitzea.
- **Baldintzak:**
 - Titulazio egokia eduki (DBH, FP1)
 - 21 urte baino gehiago izan edo 2 urteko lan esperientzia edukitzea.
- **Izen-ematea (telefonoz):** 2005eko maiatzaren 10 baino lehenago

Matrikula eta informazioa: Tel: 943 65 11 47 • Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA
E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com • Web: www.tolosaldea.com

MENDI LASTERKETA ▶

Ordu eta erdiko marka haustera

Datorren larunbatean izango da Ernioko mendi lasterketa; J.M. Garinek jarri zuen marka aurreko edizioan

JOXEMI SAIZAR

Juan Mari Garin zizurkildarrak duela bi urte jarri zuen 1:30:14 marka haustera aterako dira datorren larunbatean, maiatzak 14, Ernioko mendi lasterketako parte-hartzaileak.

75. urtemuga zuela eta, hasi zen antolatzen 2003an lasterketa hau Aralarko Adiskideak elkarteak, bi urtez behin egiteko asmotan. Orduan 2:07:14 izena jarri zion Joxe Mari Urteaga tolosarrak 1944an jarri zuen marka alegia. 60 urteren ondoren 37 minutu gutxiago egin zuen lasterketaren irabazleak.

Irteera 10:00etan emango dute Tolosako Triangulotik eta korrikalariek Erniora igo eta berriro Triangulora jaitsi beharko dute. 20 kilometroko ibilbidea da eta 1.000 metro inguruko desnibela dauka. Ibilbide bat markatuko dute, ustez azkarrena —Berrano, Martin txiki, Malako, Kurpitu—, baina baikoitza nahi duen lekutik igo eta

jaitsi daiteke. Jan-ediariak hartzeko lau gune ere jarriko dituzte, 5., 10. eta 15. kilometroetan eta helmugan. Gehieneko denbora batzuk ere jarri dituzte: bi ordu gurutzeraino igotzeko eta hiru ordu eta erdi proba osorako. Horiek gainditzen dituen antolakuntzaren babesetik kanpo geldituko da. 250 korrikalarien muga jarri dute.

Izena eman daiteke Tolosaldea Tourren bulegoan —Santa Maria plaza, Tolosa, 943 69 74 13— hamar euro ordainduta.

Ekualdeko 1.ak, HITZA saria

Sari ederrak jarri dituzte antolatzaileek: 500 euro eta txapela irabazleentzat gizonezkoetan eta emakumezkoetan, 300 euro bigarrenentzat, 200 euro hirugarrenentzat, 100 euro laugarrenentzat eta 50 euro bosgarrenentzat. Tolosaldeko lehenak HITZA garaikurra jasoko du. Dutxa zerbitzua Igarondo udal igerilekuan izango da.



Aurreko Ernioko mendi lasterketako edizioko irabazleak bere sariekin Trianguloan. DAN GIBELALDE

Aurreko edizioan, Juan Mari Garinen ondoren Arkaitz Zamakona eta Xiril Alvarez gelditu ziren gizonezkoetan. Emakumezkoetan Maider Mendia iruindarra izan zen irabazle Isabel Casado eta Rosa Lasagabasterren aurretik. 97 lagunek eman zuten izena eta 87 iritsi ziren helmugara hiru ordu eta erdiko epean. Ikusmin handia piztu zuen eta jende asko bildu zen ibilbidean zehar. Ga-

rinerik hartu zien aurrea denei lehen aldapan. Urkizuko antean galdu egin zen eta «hirupalau minutu» galdu omen zi-

tuen. 53:54 behar izan zuen igoera eta 36:20 jaitsieran. Ordu eta erditik jaitsiko al da aurtengo irabazlea?

MENDIA ▶


Datorren igandean izango da Araxesko VII. Itzulia, Amaro azoak antolatuta

9-11 orduko ibilbidea da; izena eman daiteke jada, doan da

J.SAIZAR

Zazpigarren aldiz —bi urte behin egiten dute— Araxesko mendi itzulia antolatu du Amaro azo elkarteak datorren igandearako, maiatzak 15. Auzotik bertatik 07:00etan abiatuta, 9-11 orduko ibilaldia egiteko aukera izango dute mendizaleek. Araxes ibaiari buelta osoa emanez: telebista errepetidorea dagoen Ollaun mendixka igo, Alitzotik pasa, Otsabio mendia igo eta Añi eta Zaratetik barrera Arribe-Atallura jaitsita bide erdia egina izango dute gutxi gorabehera. Ondoren izango dute aldaparik handiena, Santa Barbara igotzeko. Gorriti, MUSAIO, Merku, Ulizar, Uli, Gaztelu eta Leaburutik barrera Amaroera itzuliko dira berriro.

Ibilbidean zehar oinarriko



jan-ediariak izango dituzte, derri gorrez zortzi kontroletatik pasatu beharko dute eta Gurutze Gorriaren laguntza ere izango dute. Ibilbidea burutzen dutenek diploma bat jasoko dute. Dutxa zerbitzua ere izango dute.

Auzoko jende asko ariko da igandean lanean antolaketan, batez ere irteera-helmugan, baina baita ere ibilbideko kon-

troletan. Ehun mendizaletik gora espero dituzte.

Izena 637 18 77 48 (Jose Luis) edo 656 00 89 57 (Jose Mari) telefonoetan, auzoetxe@kzgunea.net korreo elektronikoan edo irteeran bertan 06:00etatik 06:45era eman daiteke. Ez da ezer ordaindu behar horretarako. Informazio gehiago www.amarozauzoa.com webgunean lor daiteke.

ORAIN, ESKAINTZA HANDIA

3x2 = Haurra DOAN
(5k bidaiatu, 2k ordaindu)

Eroski Bidaiak: 25 urte egiten dira, eta hasi dugu gure operari: UDA HONETAN ZURE HAURRAK DOAN BIDAIATUNO DU! Zabitza boker, plaza-kopurua eta egunak mugatuak berriz.

Tenerife	448€	Oraineko prezioa (2005ko maiatzaren 8a)	Oraineko prezioa (2005ko maiatzaren 8a)
Izotzale, 8 egun - 7 gau, Hegoaldeko Biotz, Florida Plaza apartamentuak****, Mantenu erdi.		74.541 Pta	Oraineko prezioa (2005ko maiatzaren 8a)
Mallorca	495€	Oraineko prezioa (2005ko maiatzaren 8a)	Oraineko prezioa (2005ko maiatzaren 8a)
Alutxale, 8 egun - 7 gau, Hegoaldeko Biotz, Belvedere hotel****, Dena barne.		82.361 Pta	Oraineko prezioa (2005ko maiatzaren 8a)
Tenerife	492€	Oraineko prezioa (2005ko maiatzaren 8a)	Oraineko prezioa (2005ko maiatzaren 8a)
AIBONA, 8 egun - 7 gau, Hegoaldeko Biotz, Scotts Sir Hotel****, Mantenu erdi.		81.862 Pta	Oraineko prezioa (2005ko maiatzaren 8a)
Santa Susanna	292€	Oraineko prezioa (2005ko maiatzaren 8a)	Oraineko prezioa (2005ko maiatzaren 8a)
Tampin, 8 egun - 7 gau, Hegoaldeko Biotz, Montecatini hotel****, Mantenu erdi.		48.585 Pta	Oraineko prezioa (2005ko maiatzaren 8a)

gure bizitzako eskaintzarik onenak **25**

EROSKI bidaiak

merezki duzu

www.viajeseroski.es

ANOETA-VILLABONA ▶ GAZTETXEAK



Bazkaria prestatzea izan zen anoetarrentzat eguneko lehen lana. GARAZI AZKUE



Errebote plazan bildu ziren haurrak, gazteek antolatutako jokoetan parte hartzeko. G.AZKUE

GARAZI AZKUE

Anoetako eta Villabonako gaztetxeek sei urte eta urtebete bete dituzte hurrenez hurren. Hori jakinarazteko eta ospatzeko ekintza ugari prestatu dituzte herri bietako gazteek.

Anoetan ostiralean izan zen txupinazoa, eta asteburu luzea festan igaro ostean, gaur bukatuko dira omenaldi ekintzak. Herenegun hasita, sagardo dastaketak, afariak eta kontzertuak izan dira jai giroa pizteko aitzakia. Baina behar bada, atzokoa izan zen egun garrantzitsuena, eta eguraldiak ez zion muzin egin hitzorduari. Goiz-goizetik izan zuten gazteek eguzkia lagun.

Patata tortila lehiaketarekin ekin zioten egunari; hala ere, bertakoek argitu zuten, lehiaketa baino gehiago, bazkaria egiteko aitzakia izan zen lehiaketa. Tortila patatez gain, entsaladak ere prestatu zituzten ondoren jateko.

Arratsaldean, bazkaria jais-teko edo, joko eta jolas herrikoiak izan zituzten anoetarrek; eta herrian zehar egindako po-

Anoeta eta Villabona gaztetxeen jaietan murgildutako herriak

Gaur bukatuko dira Anoetako gaztetzeko festa ekintzak; Villabonako gazteek hilaren amaiera arte izango dute jai

teoarekin bete zituzten afaria aurreko orduak. Gaueko ekintzetan ere herritarrek hartu zuten lekukoa eta gaztetxeo jendeak eginiko antzerki emanaldia eskaini zuten bertaratu ziren guztientzat. *Izaba Pilarrren Ilobak* herritarren, eta *Deskontrol* arrasatearren kontzertuek luzatu zuten gaua.

Orain arteko ekintzak bederen, ongi joan direla aitortu dute antolatzaileek. Hemendik aurrera ere, ekitaldiak antolatzaren jarraituko dute hurrengo urtemuga arte.

Hilabete luzea

Villabonan, urtebete igaro da gaztetxea kudeatzen hasi zirenetik. Lehen urtea gogotsu hartu dutenaren seinale da urtemugarako prestatu duten egitarau zabala.

Maiatzaren lehenean hasi ziren festa ekintzak, eta, zer ikusi ugari egongo da Villabonan hilaren azken egunera bitarte.

Atzokoan, larunbata izaki, egun osorako egitaraua zuten antolatuta. Iluntzera bitarteko orduak gaztetxeok bete zituz-

ten; buruhandiek kalera egin ez bazuten ere, arratsaldean, jokoak eta txokolatada izan zituzten gazteenek Errebote plazaran. Izerditzeko eta zikintzeko aukera paregabea izan zuten.

Gauean, Fredy Paia eta Silveira bertsolariak izan ziren bertso afarian gonbidatu bereziak. Nekin talde billabonatarren eta Tuboskapi taldearen kontzertuek eman zieten amaiera gauari.

Gaur, Herri Urratsera joateko parada izango dute guztiek,

EGITARAUA ▶

Hurrengo egunetan ere izango dira ekintzak Anoetako eta Villabonako gaztetxeetan.

ANOETA

Gaur.
17:00. Mus txapelketa herrikoa. Saria arkume bat.

VILLABONA

Bihar. Denok Alegira!
19:00. Dokumentala: *Irak eta Palestinako okupazioa*.
Etzi.
17:00-20:00. Argazki erakusketa azken 25 urteei buruz.

eta honenbestez, bihar jarraituko du festak gaztetxean. Alegian emango duten *Irak eta Palestinako okupazioa* dokumentala ikustera joango dira billabonatarrek 19:00etan.

Hilaren 31 bitarte ia egunero antolatu dute zer edo zer; zineklubak, mahai-inguruak edo hitzaldiak, besteak beste.

HITZA

lagunen
txokoa

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

▶ HITZAREN laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leizaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

GIZARTEA ▶

«Eta orain zer?» galdetzen dute Gerontologikoan

Gerontologikoa itxita, egoitza berrian plaza eskasia dagoela eta han eskaintzen den zerbitzuaren kalitatea ere ez dela «behar bezalakoa» eman dute ezagutzera

JAIONE ASTIBIA

Atzo eguerdian, Euskal Herria plazako Zentro Gerontologiko ohiaren egoitzan, prentsaurreko agerraldia egin zuen Gerontologikoaren Aldeko Plataformak Tolosako auzo elkarte, talde eta hainbat hautetsi ere lagun zituztela. Bertako egoiliarrek beste leku batera eraman ondoren, «herriari muzin eginez», ziotenez, «herri hone-tako aberastasun» modura jo zuten zentroa behin betiko itxi izanak, eskualdean gai horren inguruan zegoen eta bere horretan dirauen arazoak ez duela konponbiderik izan, adierazi zuten.

Banatu zuten informazioaren arabera, zerbitzu gerontologikoa eskatzen dutenen zerrendari ez omen zaio erantzunik eman oraindik: «Defizita 50 lekukoa da», adierazi zuten, Tolosan —26 lagun— eta inguruetako herrietan itxoi ten dau-



Gerontologikoaren Aldeko Plataforma, abekimena eman dieten eragileen ordezkariekin agertu ziren. J. A.

denak kontatuz eta lurramendin «plazen kopuruaren gaintik 17» daudela baieztatu ondoren.

Bestalde, eskariei erantzun egin behar zaiela eskatzeaz batera, «kalitateko zerbitzua izatea» lehentasunezkatzat jo-

zuten, zentroko egoiliar ohiek, leku berrira joan direnean, han aurkitu duten zerbitzuaren kalitatea ez omen delako «behar

bezalakoa» izan, aditzera eman zuten. Kalitatearen murrizketa hori, «zerbitzu minimoak, pertsonal falta eta gaizki ordaindutakoa, eta etxeko eta gizartearengandik urruti egotea» moduko arazoak egotzi zieten, besteak beste.

Horrela bada, beharrak ez direla desagertu ikusita, plataformaren sorrerako helburuei heltzen dietela baieztatu zuten eta konponbidea «behar bezalako eta denon ahaleginaren poderioz» etorriko omen dela «komentzituta» zeuden eta ildo horretan, proposamen berri bat egin zuten: adierazi zuten, orain arteko beren leloa *Gerontologikoa ez itxi* izan den bezala, aurrerantzean *Eta orain zer?* izanen omen da, hain zuzen ere, gerontologikoa itxi ondoren, «arazok oraindik hortxe dirautela jakinda, horiek konponbidea behar dutela aldarrikatzeko», argitu zuten.

Lan etapa berri honi hasiera emateko, dendari eta tabernari, dei egin diete, «orain arte elkartasuna erakutsiz» beren erakuslehoetan jarrita izan duten kartelaren orde, «herria gaur egun adierazten ari dena», jartzeko, hots, «Eta orain zer?» galdera duena. Bide batez, aukeraz baliatuz, «lagundu nahi duten guztiak» ere gonbidatu zituzten, asteartean, 19:00etan, Kultur Etxean egiten dituzten bilkuretara.

FUTBOLA ▶

Garaipen garbia Tolosa taldearentzat, 5-0ekoaz

«Gure lana egin dugu» esanez, gustura, lider jarraitzen du, mailaz igotzeko bideetan gora

J. ASTIBIA

Garaipen garbia eskuratu zuen atzokoan Tolosak. Berazubir, Trintxerperen aurka. 5 eta 0ko emaitza nabarmena lortu zuen eta horrela, sailkapeneko buru izaten jarraitzen du.

Gustura ziren atzokoan, beraz, tolosarrak. Partidu oso ona egin baitzuten: lehendabiziko

zatia, 1-0ko emaitzarekin bukatu bazuten ere, bigarren zatian sartu zituzten gainerako tantokak (Lasak, 2, Pradosek beste 2, eta Errastik 1). Tolosa taldeko arduradunek jakinarazi zuten, «oso gustura, pozik gaude egindako lanarekin», zioten. «Gol asko sartu ditugu eta emaitza ziurtatu egin dugu. Baina, gainera, batez ere biga-



Tolosarrak izan ziren baloiaren jabe, denborarik gehienean. J. ASTIBIA

rren zatian, sartu ditugun baino gol gehiago sartu genitza-

keen. Aukera asko sortu ditugu», adierazi zuten. Izan ere,

trintxerpearren ate aldean, «beste lau aukera izan ditugu», zioten. Gauzak horrela, beren lana egin zutela baieztatu zuten: «Lidergoari eutsi beharrean ginen eta horixe egin dugu».

Tolosa lehendabiziko doa sailkapenean, eta hiru partidua falta dira liga bukatzeko: «Horrela jarraituz, mailaz igotzeko aukera eskura dugu», zioten itxaropena eskuan.

iragarki laburrak ▶

SALGAI
Autoa. Monobolumena Peugeot 806. Oso ondo zaindua. Deitu 645 70 36 34ra.

iragarki laburrak ▶

Kutxak eta banketxeak. Lekuak libre. Sartzek laster. Informatu. 943 22 46 85.
Peoik, igeltseroak, soldadoreak, mantenimendukoak. Sartzek laster. Hernani, Arrasate, Arama, Errenteria, Antzuola, Zerain,

Mendaro, Villabona. Informatu. 943 22 46 85.
Sukaldeko laguntzaileak, garbitzaileak, sukaldariak, tabernariak. Sartzek laster: ikastebeak, erresidentziak, Eusko Jaurlaritza. Informatu. 943 22 46 85.

Administrari laguntzaileak. Sartzek laster. Hernani, Usurbil, Beasain, Altzo, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informatu. 943 22 46 85.
Gidariak. Sartzek laster: udalebeak, Eusko Jaurlaritza, Foru

Aldundia. Informatu 943 22 46 85 telefonoan.
Harreragileak, telefonistak. Erakunde publikoentzat hurrengo deialdiak. Informatu doan. 943 22 46 85.
Administrari laguntzaileak.

Liburutegiak, informatika. Erakunde publikoentzat hurrengo deialdiak. Informatu doan. 943 22 46 85.
Udaltzainak. 25 plaza libre udalekxteetan: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Irun, Arrasate. Informatu doan. 943 22 46 85.

